

5 Geltoki

HISTORIAN



Family
Friendly

familia plana

Urola ibaia jarraituz, milaka urteko bidaia egiteko aukera duzu hemen. Zure familiarekin batera, jolas eta asmakizunen bidez, historiako bost momentu zoragarri bizitzeko aukera duzu!

Ongi etorri Urola bailarara!

Kilometro gutxi dituen bailara honetan milioika urteko abentura bat bizitzera zoaz. Dinosaurioak, lehen gizakia, santuak, trenak, jauregiak... denetarik izango duzu bidai zoragarri batean!

Euskal Herriko ezaugarriak bete-betean ezagutzeko aukera duzu hemen. Historian bost geltoki egingo dituzu Urolan dituzun bost zentro desberdinetan: Algorri Zumaiaiko Natur Baliabideen Interpretazio zentroa, Zestoako Ekainberri eta Lili Jauregia eta Azpeitiako Burnibidearen Euskal Museoa eta Loiolako Santutegia.



ALGORRI geltokia

LILI JAUREGIA geltokia

EKAINBERRI geltokia

BURNIBIDEAREN EUSKAL MUSEOA geltokia

LOIOLAKO SANTUTEGIA geltokia

Lortu zure doako sarrera

Ba al dakizu eskuorri honekin 12 urtetik beherakoek lau leku doan bisitatzeko aukera duzuela?

Bai noski!

Eskuorri hau ematen dizuten lehendabiziko museoa, lehendabiziko seilu bat izango duzu. Hau lortuta, ordutik aurrera, beste guztiak doan bisitatu ahal izango dituzu. Beraz, etzazu aukera galdu eta leku bakoitzean proposatzen dizugun ariketa egitearekin batera, eskatu seilu bat jartzea. Bilduma osoa lortzeko erronka duzu hemen!

Urola bailara familia turismoari begira jarri da. Familian umeein datozen bisitarietara behar bezalako harrera egin eta jarduera desberdinak aukeran jartzeko osagaiak ditugu geurean. Basquetourek bultzatzen duen Euskadiko Familia Turismoa proiektuan buru belarri sartuta dago eskualdea, eta laister, "Family Friendly" izendapena lortuko duten hainbat establezimendu izango ditugu geurean, bereziki umeein datorren bisitarietara behar bezala hartatzeko prestatuak.

Hauke guztiak, familien gozagarri bailaran ditugun jolas parke, atsedengune, naturgune, Urolako Bidegorria gehituko zaizkie, orotara Family Friendly destina osatuz.

LOIOLA SANTUTEGIA geltokia

XAGUXATAR PARKEA ETA IZARRAITZEKO ATEA PARKEA (AZPEITIA)

Loiolaren ingurunean naturgune paregabean kokaturiko bi jolas eta atsedene leku. Laberintoa, eskalada gunea, armiarma sarea, ur txorrotak, zuhaitzak, eserlekuak, itzala... eguna pasa liteke hemen!!



JORGE OTEIZA FRONTOIAK (AZKOITIA)

Pilota joko desberdinak praktikatzen dituzten artelan batean... ba al dago gehiago eskatzerik?



BURNIBIDEAREN EUSKAL MUSEOA (AZPEITIA) geltokia

AZPEITIKO PLAZA

Oinezkoentzako gunea, jolas parke estalia 25 metrora, musika kioskoa, azoka plaza eraberritua, ostalaritza zerbitzuak, terrazak...



UROLAKO BIDEGORRIA

Museoaren ate parean bidegorrian sartu eta Lasaraino ipar aldera eta Legazpiraino hegoaldera iristeko aukera, Xaguxatar Parkea, Loiolako Santutegia edo Azkoitiko herrigunetik pasatzen delarik. Lehen mailako baliabidea da honakoa.



EKAINBERRI – LILI (ZESTOA) geltokia

ZESTOAKO HERRIGUNEA - PLAZA

Harriz osatutako plaza hau, herriko jaietan, irailan, zezen-toki bihurtzen da. Kultur ondare historikoz inguratuta, Zestoako bitzta honen inguruan egiten da. Erdi Aroan, hiribildua harriz inguratua zegoen eta lau sarbide zituen, oraindik ikus daitezke...



IRAETAKO TREN TXIKIA ETA BERTARAINOKO IBILBIDEA

Zestoatik pare bat kilometrotara dagoen auzoan, Iraetan, aurkitzen da Iraetako Tren Txikia. Zestoatik oinez joan daiteke bidegorrian. Martxotik abendura arte hileko bi larunbat arratsaldetan eta urteko beste egun batzuetan ibili daiteke tren txiki berezi batean.



ALGORRI (ZUMAIA) geltokia

ALGORRI-ITZURUN-FLYSCHA

Geoparkeko altzorrek ezagutu Algorri Intepretazio Zentroan eta handik oso gertu dagoen Itzurun hondartza eta San Telmo ermita bisitatu, flyscharen ikuspegi ederrak gozatzu. Bidean Amaia plaza duzue, adin txikikoentzat jolas ugari eskaintzen dituen, plan borobila!



SAN JUAN ITURRI

Zumaiako alde zaharrean galtzeko aukera baduzue txoko bereziak aurkituko dituzue, zein izango da zuen txoko kuttunena?





Geoparkeko kostaldeak istorio asko kontatzen ditu. Itsasoak lurrarekin talka egiten duen leku honek ez du hitz egiten, baina harriak euren modu berezian mintzatzen dira. Duela milaka eta milaka urteko gertaerak azaltzen dizkigute: dinosauoak, desagertutako animaliak, kostaldeko bilakaerak...

Harrien geruza hauek guztiek oso forma bitxiak osatzen dituzte. Hemen jolas txiki bat proposatu nahi dizugu. Lagundu aspaldiko animalia txiki honi gaur egunera etortzen, labirinto itxura duen flyscharen zati honetatik alde egin nahi du eta.



Flysch izena duen harri formazio honetan, liburu baten modura, aspaldiko gertaerak aztertu daitezke. Hemen bizi izan ziren animalien aztarnak topatu izan dira eta dinosauoen garaiari dagokion liburu honen zatia ere ikusi daiteke.

Ezetz asmatu...

Nortzuk dira kostaldeko flysch hau aztertzen duten zientzialariak? Galdetu Algorrin ari diren hezitzaileei, ziur beraiek badakitela!

G _ _ _ _ _ K



Ekain haitzuloko zaldia margotu zituzten

-14.000 K.a.

Gizakiek Ekain haitzuloko bizitzeari utzi zioten

-8.000 K.a.

Ekainberri



Orain dela 14.000 urte, lehen gizakiak, Ekaingo kobazuloan marrazki oso bereziak egin zituen: zaldia, oreinak, artzak... Ekainberri, koba barruko leku magiko eta ezkutuan dauden margo hauek ikusi ahal izango dituzu. Bere koloreak begiratu eta mugitu egiten direla irudituko zaizu.



Margotu hemen duzun irudi hau behealdean dituzun koloreak erabiliz, kobazuloa kolore berdinekin. Zenbakiak ondo jarraitzen badituzu, historiaurreko animali hauek koloreztatuko dituzu eta beharbada... mugitzen hasiko dira!



Gainera, Ekainberriko lagunek, beroa eta argitasuna lortzeko sua egiten erakutsiko dizue, historiaurrean erabilitako teknika berdinekin. Ehizatzen ere erakutsiko dizue, jateko zerbait lortu behar dugu eta! Margotzeko zure abilezia ezagutu nahi dugu...

Ezetz asmatu!

Ekain kobaren barruan, sakon sakonean, bi hartzen marrazkiak daude, beltz kolorekoak. Baina hauetako bati zerbait falta zaio... zer da hartz handiari falta zaiona?

--- R ---



Lili Jauregia
eraikitzen hasten da

1.525. urtea

Lili familiak Jauregia utzi
eta Zestoako herriguneko beste
batetara aldatzen da

1.610. urtea

Lili Jauregia





Hemen Andre Madalenen Lili Jauregian dauden gauzak dituzu, baita ere zure etxean topatu ditzakezunak. Elkartu bata bestearekin, berdinerako balio duten gauzak historian aldatu egin direla ikusteko.

Lili Jauregia

Etxe handi honek 500 urte baino gehiago ditu. Bertan gauza asko eta asko pasa dira urte guzti hauetan. Pertsona dirudunak, soldaduak, printze eta printzesak... egon dira jauregi handi honetan. Baina Andre Madalen da gehien maite dugun bertako biztanlea.

Jauregi honetara sartzean, historian atzera egingo duzu. Andre Madalenek bere historia kontatuko dizu, bere bizitza oso gogorra izan zela konturatuko zara eta gaur egun zure etxean dituzun erosotasunak ez zituela ezagutu ikusiko duzu...




Ezetz asmatu...

Andre Madalenek seme-alabak izan zituen. Hauek zaintzeko, bere ohe ondoan txikiek lo egiteko leku berezi bat dute. Zer da?





Desafio txiki bat proposatu nahi dizugu. Loiolan bazaude, santutegia pare parean izango duzu. Zuk birdiseinatzea nahi dugu. Horretarako hemengo zenbakiak lerro batez elkartu eta zure Loiolako santutegiaren marrazkia sortuko duzu.



Ezetz asmatu...

Zenbakiak lotuta santutegia marraztea lortu baduzu, galdera hau oso erreza izango da zuretzat. Eskailerak igo eta gero, zenbat arku daude santutegiko sarrera nagusian?

Hemen Euskal Herriak eman duen pertsonaia unibertsalena jaio zen, Loiolako San Inazio. Ez zen eliza handi honen barruan jaio, noski. Orduan ez zegoen eraikita! Bera hil eta mende batetara hasi ziren eraikuntza ikusgarri hau eraikitzen San Inazioaren omenez. Santutegi honen bihotza da Loiolakoa jaio zen Dorretxea, hor barruan ondo gordeta dagoena.

Santutegi honen barruan San Inazioaren dorretxea ikusi ahal izango duzue. Bere logela, bere aretoak... bere bizitzako momentu garrantzitsu asko hemen bizi izan zituen. Hala ere, basilikan ere sartu zaitezte eta santutegiko barrualdea izugarri handia dela ikusi ahal izango duzue.



Stephensonek lurrunezko lehen tren-makina eraiki zuen

1.815. urtea

Urolako trenaren azken bidaia

1.986. urtea


Burnibidearen Euskal Museoa



Zenbat aldiz igo zara tren batetara?
Bidai luzeak edo motzak egin dituzu?
Tren guztiak berdinak al ziren?
Trenaren historia oso luzea da. Forma eta modu askotakoak izan dira historian zehar: lurrunezkoak, diesel bidez funtzionatzen zutenak, elektrikoak...

Leku honetan forma, tamaina eta diseinu desberdinetako tren historiko tren asko ikusi ahal izango dituzu. Historian zehar nola aldatu diren konturatuko zara. Gainera, zortea baduzu, hauetako tren batean bidai txiki bat egiteko aukera izan dezakezu.


Tren mota desberdinak daudela ikusi ahal izango duzu. Kolore, forma, eta tamaina asko daude. Ariketa txiki honekin zure tren propioa diseinatu ahal izango duzu. Kopiatu ezkerreko zatia eskuinaldean, baina kontuz, ispilu joko bat da!



Ezetz asmatu...

Lurrunezko trenek ez zuten elektrizitatea erabiltzen abian jartzeko. Zein material erretzen zen gurpilak martxan jartzeko lurruna sortzeko?


_ K _ T _



UROLAKO BIDE BERDEA

Ibilbidea: Lineala
Zailtasuna: Erteina
Lurzorua: Lur trinkotua / asfaltua
Denbora: 4-5 orduak
Desnibela: +148 m
Hasiera: Mirandaola / Zumaiara

44,3 km



PEDALEI BIDE BERDEAN ERAGINEZ BISITA ITZAZU 5 GELTOKIAK

Orain Urolako Bide Berdean barna irits zintezke 5 Geltokietara! 1920-1926 bitartean Zumarraga eta Zumaia lotzen zituen Urolako Trenbidearen bidetik, 37,5 km-ko etenik gabeko ibilbide paregabea daukagu orain, bizikletaz zein oinez zeharkatu dezakezuna.

Legazpiko Mirandaola parketik Zestoako Iraeta auzorako ibilbidean zehar hainbat tunel, zubi, trenbide dotore, txoko berezi eta herri zeharkatuko dituzu. Aukera aparta duzu Urolako Bide berdean natura eta kultura uztartzeko eta gozatzeko; familian, taldean zein bakarka!

Esperientzia berri bat proposatzen dizugu beraz, 5 Geltoki Historian-eko parte diren Loiolako Santutegia, Burnibidearen Euskal Museoa eta Lili Jauregia batetik bestera bidaia zoragarri batean bisitatzeko!



Azpeitiako geltokia



Lurrun-trena

UROLA ERDIA ESKUALDEKO TURISMO BULEGOA (LOIOLAKO SANTUTEGIA)

Loiola auzoa, (016) Loiolako Santutegia
 20730 Azpeitia
 Tel: 943 151 878
 i-loiola@urolaturismo.eus
 www.urolaturismo.eus

AZPEITIKO TURISMO BULEGOA

Basazabal Jauregia, Enparan Kalea 18
 20730 Azpeitia
 Tel: 688 87 48 61
 turismobulegoa@azpeitia.eus
 www.azpeitia.eus/turismoa

ZUMAIAKO TURISMO BULEGOA

Kantauri Plaza, 13
 20750 Zumaia
 Tel: 943 143 396
 turismoa@zumaia.eus
 www.zumaia.eus/turismoa

ZESTOAKO TURISMO BULEGOA

Portale kalea, 1
 20740 Zestoia
 Tel: 943 868 812
 info@zestoaturismo.net
 www.zestoaturismo.net



Azkoitia 1981
 Tren elektrikoa



Algorri, Zumaiaiko
Natur Baliabideen
Interpretazio Zentroa
Juan Belmonte, 21
20750 Zumaia
Tel: 943 143 100
info@algorri.eus
www.algorri.eus



- Irailetik ekainera
Asteartetik ostiralera: 10:00-13:30 // 16:00-18:30
Larunbata: 10:00-16:30 // 16:00-19:30
- Igande eta jaiegunak: 10:00-13:30
Uztaila eta abuztuan
Asteartetik igandera: 10:00-13:30 // 16:00-19:30

* *Urtarila, otsaila eta abenduko astelehen, astearte eta asteazkenak ixita.*

Ekain berri



Ekainberri
Portale kalea, 1
20740 Zestoa
Tel: 943 868 811
info@ekainberri.eus
www.ekainberri.eus



- Asteartetik ostiralera: 10:00-18:00
Asteburu, uda eta jaiegunak: 10:00-19:00

* *Etorri aurretik erreserbatu, leku mugatua*
* *Sarrerak Zestoako erdigunean kokaturiko Informazio Puntuan jaso behar dira*

Lili Jauregia



Lili Jauregia
Portale kalea, 1
20740 Zestoa
Tel: 943 868 811
info@lilijauregia.com
www.lilijauregia.com



- Uztaila eta abuztuan
Emanaldiak asteartetik larunbatera: 11:30, 12:30, 16:30, 17:30
Emanaldiak igandetan: 11:30, 12:30
- Irailetik ekainera
Emanaldiak larunbatetan: 11:30, 12:30, 16:30, 17:30
Emanaldiak igandetan: 11:30, 12:30

* *Etorri aurretik erreserbatu, leku mugatua.*
* *Saiok gehienez 20 pertsonakoak izango dira.*
* *Jaiegunetako saioetarako, webgunea kontsultatu.*
* *Sarrerak Zestoako erdigunean kokaturiko Informazio Puntuan jaso behar dira.*

LOVOLA



Loiolako Santutegia
Loiolako Santutegia
20730 Azpeitia
Tel: 943 025 000
visitas@loiyola.global
www.loiyola.global



Goizez: 10:00 - 12:30
Arratsaldez: 15:30 - 18:30

- Uztaila, abuztua, iraila eta urria:
10:00 - 18:30etara (Eguerdiaren ez da itxiko)

* *Liturgia ospakizunen informazioa webgunean kontsultatu*



Burnibidearen
Euskal Museoa
Julian Elorza, 8
20730 Azpeitia
Tel: 943 150 677
museoa@euskotren.eus
www.euskotren.eus



- Asteartetik ostiralera: 10:30-13:30 // 16:00-18:30
Larunbatak: 10:30-14:00 // 16:00-19:30

- Lurrunezko trenaren bidaien ordutegia
Larunbatak: 12:30-18:00
Igande eta jaiegunak: 12:30

* *Gure gomendioa trenaren bidaia baino orubete lehenago etortzea da.*

ZURE FAMILIAREKIN GURE ESKUALDEAN ASTE BURU BAT IRABAZI NAHI DUZU?

Erraz erraza da sari hau irabaztea!

5 geltokietako historia hau bizi baduzu, **bidali iezaguzu argazki bat**, zure ibilbideko edozein puntuan. Zu eta zure familia ikusi nahi zaituztegu Algorriko flyscha aztertzen, Ekainberriin sua egiten, trenean bidai zoragarria egiten, Andre Madalenen etxea bisitatzen edo Loiolako Santutegiko arkitektura ikusten.

Aukeratu zuen argazkirik onena eta **5geltoki@urolaturismo.eus** helbide elektronikora bidali zuen datuekin: izena, telefonoa eta helbidea. Urte bukaeran, jasotzen ditugun argazki guztien artean zozketa egingo dugu eta irabazleak **Urola bailarako hotel edo landetxe batean asteburu bat pasatzeko aukera izango du**. Animatu eta erakutsiguzu zer moduz pasa duzun gure artean!

2018ko
irabazleak



Parte hartu zozketan

Asteburu bat familiarekin!

DOAN

Family
Friendly



www.urolaturismo.eus



Lege oharra

Eskuorri honetako eskaintzak balaitzeko arauak: Eskuorria doakoa da. Hamabi urtetik beherako haurrentzako da eta haur bakoitzak eskuorri bakarra izateko aukera izango du. Hala ere, haur desberdinek partekatu dezakete eskuorri bakar bat "5 geltoki historian" ekimenaren baitan dauden museoak bistatu ahal izateko. Haur erabiltzaileak, eskuorria museoko txartel-leihatilan aurkeztu beharko du. Hain, kontrol neurri bezala, zigilua jarriko diote dagokion lekuan. Eskuorria lortzen den lehendabiziko museoan sarrera modu arruntan ordaindu beharko da, beste lekuetan, behin lehendabiziko zigilu bat lortuta, sarrera doan izango du. Eskuorriaren erabiltzaileak, museo bakoitzak beste bistantentzat dituen erabilera baldintza berdinak errespetatu beharko ditu. Eskuorria behin eskuratuta, ezingo da diruagatik trukatu. Urolako landetxe betearen asteburu pasatzeko lehiaketarako parte hartzaileak, bidaltako argazkiak ekimen honetako eragile eta ekintza beraren komunikazio euskarri ezberdinetan erabiltzeko baimena ematen dute. Edozein iradokizun, gertakari, kexa edo kontsulta egiteko, idatzi 5geltoki@urolaturismo.eus posta elektronikora.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



EXPLORE
SAN SEBASTIAN
REGION



iB
IROLA RI BERTZEN

2019ko apirila